

Antonio Iturricastillo Askasibar

*Elgeta, Gipuzkoa
(1930-2008)*

Aurkibidea

Biografia



Elgetako San Juan baserrian jaioa 1930ean. Lehenengo ikasketak Elgetan egin zituen; geroago Eskoriatzako Marin auzoan, eta Donostian ere egonaldiak egin zituen. 30 urterekin eskopetagintzan hasi zen lanean. Lan-esparru desberdinak ezagutu baditu ere, baserrian aritu da etengabe eta oso azalpen interesgarriak ematen ditu. Irakurtzea asko gustatzen zaio, batez ere, historia liburuak. Aita eta aitonaarengandik jaso edo entzundako kontuak ere ondo gogoratzen ditu.

Zintak

ELG-012

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Elgeta.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2006-07-10
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin

ELG-013

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Elgeta.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2006-07-10
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV

Pasarteak

1. "Illua" eta honekin lotutako ohitura zaharra

- **Erref:** ELG-012/002
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:01:50. **Bukatu:** 00:05:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Natura » Meteorologia
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Insignis pinua 40 urte ingururekin egoten da botatzeko moduan. Hortik gora ez da komeni, "ilotzen" hasten delako. "Illua": enborrari barruan sortzen zaion egur ustela. Aste Santuko ohitura: mutikoak etxez etxe joaten ziren su bedeinkatuarekin sututako "illua" eramatera.

Transkripzioa

-... sartu dana piñuz eta... Ointxe bota dabe. Horrek piñuixorrek eukazen hogeta hamabost urte inguru. Hortxe inguruan, hortik berrogei urtera. Behin berrogeta hamar urte ezkerio zarra da piñua, "sobre todo" insenisa, zarra da, ze illotzen hasten da, segun ze parajetan dauen, baiña. Illotzen hasten da. Illua badakizu ze dan, ezta? Ba tronguai barruan formatzen jakon ustela, egur ustela. Illua. Illua da guk ohittu ixan doguna aste santuan, "sobre todo" zapatu santuan; hartzen da su bedinkatua illuakin eta eruaten zan orduan, ekarten zan etxetara, labatara, eta sutara botatzen zan ba... ez dakit nik zegaittik. Ohittura, ohittura zahar bat da hori, botatzen zan, eta guk ba mutikuak zela giñan, ba etxetara-ta entregatzen giñuan eta gero hiru edo lau txakur haundi emoten oskuezen, eta haren aldera han sua hartu eta ekarten zan; eta bazian, orduan be danerako jentia euan eta gu baiño espabillautxuauak be, eta harek eitten eben, guk baiño ordu erdi bat lehenao erak emon sua zeozekin, pospoluakin edo zeozekin, eta entregau hango sua dan moduan, eta gu etortzen giñanian suakin: "Bai, ekarri doskue ba sua". "Zelan ekarriko

otsuen ba zuei?" Hori Jesukriston kurutzian moduan da: Jesukriston kurutzia, ba, judixuak toneladak salduittue. Toneladak Jesukriston kurutzia diela! Baiña saldu dabenak be dirua hartu dau, eta erosi dabenak be beren fede onakin erosi dau; oseake bixak ondo serbiduta geldittu dia.

-Su bedeinkatua nun hartzen ziñuen?

-Su bedeinkatu hori egoten zan elixpian.

-Egun horretan bertan egitten zan?

-Bai. Lehen Bariku Santu, Bariku Santuan ez dait, Zapatuan eitten zan lehen be. Baiña oin diferente dao. Oin eitten da zapatu gabian, mezia eta elizkizuna eta eitten dia. Bueno, oin diferente da. Oin kanbixau ein die gauzak eta diferente da. Eta han bedeinkatzen eben sua eta, bedeinkatzen dau abadiak sua, eta Kandelarixoz kandelak bedeinkatzen dien moduan San Blasetan, ba sua bedeinkatzen da Zapatu Santu egunian. Eta gero, ba, esan doten moduan, ba, sinisten dabenak edo, sinisten ez dabenak be bai askok, numerua eittearren edo zeoze eittearren eruaten dabe.

-Eta esan dozu etxeko sutara botatzen zala?

-Bai. Ni akordatzen nai gurian amandriak-eta, amandriak-eta gurian fede haundixa euken, aittajaunak-eta gure aldian. Fede haundiko personak zian-eta; harek sutara botatzen eben eta labara-ta, harekin aittiaren ein-eta. Bai, halako istorixak, halako istorixak. Ze antxiñako sorgiñen moduko istorixak, bakizu? Bestekaldera, baiña bueno...

-Eta ohittura horrek poliki-poliki...

-Bai. Horrek ohitturok ba geldi-geldi... Ez, gurian oindio esistitzen dau. Bai, oindio esistitzen dau gurian. Baiña gurekin amaittuko dia horrek be.

2. Prozesioetan moro jantzita

- **Erref:** ELG-012/003
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:05:10. **Bukatu:** 00:07:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Beste batzuk

Laburpena:

<p>Erramu egunean gurutzeak egiten ziren. Prozesioetan moro jantzita ibilitakoa da; aitonarengandik datorkion tradizioa da. Prozesioak egin ondoren afaria egiten zen. Prozesioak nolakoak izaten ziren. Prozesio bakoitzean ze santu eramaten zen.</p>

Transkripzioa

-Hori eta Erremu Eguneako kurutzia-eta nik nere denpora guztian ezautu dittut. Ni prozozioñotan-eta ibilitta nago, moro jantzitta. Bai, urtero, ze hori etorren, aittajunen zeretik etorren. Ni, nere aittajuna moro jazten zan zerak eruateko, Kristo Andakua-ta, Ama Birjiñia-ta eruateko. Eta gero aitta jazten zan, eta aittak edadia eukanian ba gero ni hasi nintzan.

-Tradiziñua zan?

-Tradiziño moduan, ba ni hasi nintzan. Eta ba gero ba nerekin [nahasi?] amaittu zan tradiziñoi. Eta gero ni barruan nauela ez zala ein bihar, eta eztakit zer. Eta badakizu zer pasatzen dan, ba, lehen huskerixa batekin... Ez zan morotzia bakarrik. Morotza ondorengua ixaten zan, merienda edo zera eitten zan, afarixa eitten zan, eta moruak... ha zan inportantia, orduan noiznahi ez zan tabernan afarixa eitten-eta. Eta klaro, elixiak pagatzen eban zati bat, porejenplo emoten eban ba, elixiak emoten eban

honenbeste diru, diru asko ez zan emoten eban, baiña emoten eban, pagatzen eban ardaa harako, eta ardaa sobratzen zana saldu eitten zan atzera tabernarixai, eta bittartian gelditzen zan diruakin pagau eitten zian afarixak. Eitten zan Erremu Egunian San Rokera eitten zan erromerixia. Erromeixia nik, ostera. Prozosiñua, eta gero eitten zan Eguen Santu Egunian, eitten zan Ama Birjiñiakin... Nik Ama Birjiñia eruatzen naban betik, hori bakotxak bere zerak erezen-eta. Eta Ama Birjiñia eta santokristua. Santokristua nere lagun batek eindakua da azkenegua dauena. Bai, "el año cincuenta y dos" inaugurau zan hori santokristuoi. Eta gero esan doten moduan, santokristua, Ama Birjiñia, eta zein ixaten zan bestia? San Jose uste dot. San Jose ixango zan. Eruatzen zien, hiru santu eruatzen zien, baiña San Jose eruatzen ebenak ez eben jazten moro, ez zien jazten. Jazten zien bakarrik Ama Birjiñia eta santokristua eruatzen ebenak, eta gero barikuan ixaten zan prozosiñua diferente.

3. Domingo Iturbe; ikastetxeen historia Elgetan

- **Erref:** ELG-012/004
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:07:55. **Bukatu:** 00:11:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Ramona Kortabarria izeneko emakume batek santu bat eman zion elizari. Emakume honen senarra, Domingo Iturbe, elgetarra zen izatez baina Ameriketara joan eta aberastu egin omen zen urrearekin negozioak eginda. Domingo Iturbe. Mojak zeuden lekuan eskolak jarri zituen eta eraikin berri bat sortu ere egin zuen gerra aurrean. Gerra garaian eskolak apurtuta geratu ziren eta herritarren artean eraiki zuten eskola berria.

Transkripzioa

-Santokristua ez zan eruatzen, gero eruatzen zan Kristo Andakua. Oseake, hori zan, hemen euan andra, bertakua zan baiña klaro; zan Doña Ramona Kortabarria, erregalutakua zan hori, emon otsan elixiai [...] Kristo Andakua. Emon otsan elixiai; klaro, ha eitteko elixiak ez eukan diruik be, baiña hori zan andra bat; ba, ointxe Elgetan badago ba itturrixa, itturrixan onduan soziedade bat dao, hoixe soziedadioi gerratian apurtu ein zan, "en el treinta y siete", treinta y seisko gerran apurtu ein zan, eta gero harek atzera eiñ eiban. Eta ha andria zan, haren gizona zan amerikanua, hemengua ixatez, hemengua zan, baiña Ameriketara diru asko ein eban, diru asko ein eban. Urria etaratzen dabenei erosten otsen urria, eta berak saldu eitten eban berak dakixenai. Oiñ txatarrerua ixatian moruan, txatarra erosi, [...] eta gero saldu, berak jakingo eban zeifiñ saldu. Nik ez dakitt ezer, baiña hori gizonoi gure aittajunen edade ingurukua zan, eta aittajunak, aittak-eta esanda, han pistola bikin ibiltzen ei zan; segiduan han forrua kentzen ei eben, ikusten eben dirua-edo, gabaz ikusi ezkeriok, edo badoia hau hara edo hona-edo, voló!

-Berez Elgetakua zan?

-Elgetakua uste dot zala. Hortxe Iturbe basarrixa, hor badare basarrixak handikaldian, hor Itturbe edo, han jaixua izan bihar eban.

-Gero hona etorri...

-Bai, gero kriadiakin ezkondu zan. Kriadiakin ezkondu zan eta familixaik ez

eben euki. Eta horrek einddakuak dia Domingo Iturbe, horrek einddakuak dia zerak, eskolak eta danak, oiñ Malaa esaten dotseun eskolia, oiñ tabernak eta darena, horrek ein eban. Horrek ein baiño gehixao, horrek arreglau eiñ eban Malaa. Malaa(n) mojak erezen eta eskolak ifiñi zittuan horrek. Eta gero Patronatua esaten jakona, Domingo Iturbe, etxe haundi bat dago hor geldi-geldi, eta ha eiñ eiben, eskolak, eta gero eskolak emoten ibilli zian ba gerra aurretik. Gerra aurreko istorixekin nabill. Eta gero gerria etorri zan, eta gero fraillio desbandadia jo eben gerria etorri zanian, eta, klaro, hori kuartel moruan euki eben, eta han erdi-apurtu ein zan kaiñonazoka eta bonbazoka. Eta gero atzera gure aittak-eta, eta beste haren moduan herrixan beste batzuk eiñ eben, eta hemen basarritarren danen artian, ekixenak arotzak arotzerixia eitten eben, eta hargiñak ekixenak hargiña. Eta gero han bihar zan materixala danak irixekin-eta eruaten eben, bakotxak bere basotatik bota-ta. Ze esaten da hori oiñ... auzolana, auzolan.

4. Komulgatzeko ordaindu egin behar

- **Erref:** ELG-012/006
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:12:20. **Bukatu:** 00:14:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

<p>Gerra aurretik komulgatzera joaten zenak txakur handia ordaindu behar izaten zuen. Jasotako diru hori ez zela mugitzen eta balorea galtzen zuela komentatzen du.</p>

Transkripzioa

- Lenengo dirua, pentsaizu, emuten ebana, horrek emundako diruakin, hori zera eitten eben, hori zelan da, komulgatzera faten ziñanian zu, zeure medalliakin eta uniformiakin faten zi.., neu be fanda nao medalliakin! Baiña aurretiko gauzak die. Askoz aurretikuak. Gerra aurreko gauzak die eta. Honek ixango dia sobre el año veinte o por ahí nik kontatzen dihardutenak. "Quince-veinte" ingurukuak. Eta, klaro, komulgatzera faten zana bere dirua eukan, ez dakit exato zenbat zan, baiña ez dakit erriala ala txakur haundixa eukan. Txakur haundixa da "diez céntimos", ha antxiñako kobrezko txakur haundixak. Harek zian diez céntimos. Eta erriala zan hurrengo, errial bikua, errial eta errial bikua. Baiña uste dot txakur haundixa zala.

-Konfesatzera joan eta...

-Bai, zera emuten dotsuen lekuan, taka, hari komurgatzen zana danga!, danga!, danga! Eta, karo, horrek gauzok, etorrixa zelan euan neurtuta, harek diruok zelan ez zerezen produzitzen ifinita; produziru-tzen egon balitzaz harek diruak, ba, ordurako asko zien harek diruak. Azkenian geldittu zianian be, diruak danak garbittu zianian be, "no sé si eran trescientas mil pesetas o algo", e! Hori ointxe, orduko diruak! Orduan "trescientas mil pesetas en Elgeta" erdixa erosten ziñuan. Baiña, klaro, gero baloria galdu dau diruak. Amerikano askoi hor galdu jako dirua.

5. Osaba Californian artzain

- **Erref:** ELG-012/007
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:14:05. **Bukatu:** 00:16:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Disporara bidaia » Diasporara joateko arrazoiak
- Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan

Laburpena:

<p>Bere osaba 17 urtean artzain ibili zen Californian. Morroi moduan joan zen, baina bere nagusia edadetua zen eta gerora haren ardiak erosi zituen. Ardi haiek saltzean prezioa igota zegoen eta aberastu egin zen osaba.</p>

Transkripzioa

-Nere tio be amerikanua zan. Nere tio, aman anaia, Kalifornian pastore ibili zan hamazazpi urtian; eta behin bajau zan bakarrik herrira. Eta harek esaten eban hango moruko bizimodua eruan ezkeru hemen dauala Amerika. Hara fan barik. Hamazapi urtian bera behin bajau zan herrira bakarrik. Osea, fan zan basora-ta. Harek esaten eban, berak han eiñ daben bizimodua hemen eiñ ezkerio, hemen dauela Amerikak hara fan barik. Hemen ein leikiela ha dirua harek ein ebana hara fan barik. Hari pasau jakon, harek suerte haundixa ixan eban nere tiok, pastore fan zan eta, kriaufan zan pastore, eta bere uezaba, edadia harek be, eta ardixak tiok eukazen, eztatit nik zenbat, bi milla eta bostehun ardi-edo eukazen tiok. Eta bestiak eukazen hiru milla edo, berorren uezabak. Eta, klaro, tiok ze eiban, uezabak saltzeko ifiñi zittuanian ardixak, tiok erosi ein zittuan harek ardixak; uezaban ardixak erosi ein zittuan tiok. Eta erosi ebanetik saldu zittuanera ikaragarrizko gorakadia jo eban. Lehen esan doten diruena, dirua zelau bajau zan, diruak ikaragarrizko gorakadia egin eban. Eta gure tiok kriston diru pillia ekarri eban. Gero saldu ein zittuan danak, etorri egin zan. Ia edadia be baeukan, etorri zanian tiok euko zittuan berrogei bat urte edo, berrogeta... hortxe inguruan egongo zan tio etorri zanian. Por ejemplo, esango dotsut, zenbat diru ekarri eban? Eta eztatit seguru, baiña bost bat basarri erosteko beste bai behintzat; bost bat basarri hori bai, hori ondo. Hori ondo ekarri eban. Eta, klaro, harek hoixe esaten eban, beti esaten eban harek: han dirua ein bai, baiña gero, klaro, pasatzen jakona zan, zer haundixa euki eban, alde haundixa euki eban dolarrak pesetara kanbixatzerakuan. Orduan denporan. Gaur eurua gehixao da dolarra baiñok, baiña orduan askoz be gehixao zan dolarra pezetia baiño. Orduan pezetia uste dot euala. Bai, pezetia.

-Orduan kanbixora diferentzia haundixa eukiko zeban.

-Bai. Halaxen izan zian horrek historixok. Halaxen pasau dia eta halaxen gelditzen dia horrek.

6. 1928 arte Angiozar eta Ubera Elgetakoak

- **Erref:** ELG-012/008
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:16:40. **Bukatu:** 00:20:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Ama eta osaba Uberakoak ziren. 1928ra arte Ubera eta Angiozar Elgetakoak ziren eta, beraz, elgetarrak ziren. 1928an Eibarko errepidea egin zenean egon ziren arazoengatik Bergara izatera pasa ziren. Ubera eta Angiozar Bergarara pasa aurretik Elgeta oso handia zen terrenoz; mugak non zituen. Bergarako Santamaña auzoa ere garai batean Elgetakoa izandakoa da. Honen inguruko kontuak.

Transkripzioa

-Tio gero ezkondu ein zan, Uberakua zan nere ama eta tio be bai; Uberan jaixuak zien, Elgetako zerak zian horrek, Elgetako parrokienuak [zuan], hasta el año veintiocho, mil novecientos veintiochoraiñok Elgeta zerekua zan, o Ubera eta Angiozar zien Elgetakuak. Ta klaro, horrek zien Elgetakuak esaten jakuen, eta horrek zien auzounak Elgetakuak, Angiozar eta Ubera. Gero horrek Bergara joan zien el año veintiocho, euki zittuen gorabeheregaittik, gehixen be Eibarko kamiñua. Horren inguruan formau zan folloiagaittik. Kriston folloia montau eben eta klaro gero, e.... Esaten eban, gure aittak esaten eban "bake edarra fan dienen sikiera. Buf!" Esaten eban: "Gutxiao gaittuk, baiña... Elgetan farol bat ipintzen zian, Angiozarren be ipiñi ein bihar farola, eta Uberan be bai beste bat. Joe!", esaten eban aittak. "Hau dok jiria hau, hau dok martxia hau". Kamiñua ein zian Eibarrera, klaro, Elgetak salida bat bihar eban, ezta? Eibarrekin orduan hartuemon haundixa eukan, orduan momentuan. Dana!, dana, dana, dana!, esateko. Eta gure senittarte guztiak be danak Eibarren erezen. Dana, eta karo. Hori kamiñuoi ein zian, Angiozarren be kamiñua ein bihar zala. "Joe ba, itxoizue ba, bixak batera ezin leikezela eiñ-eta." "Gero ezta eingo, eta ointxe." "Ointxe ezin leike ein." Eta klaro, Elgetako aiuntamentuak, itxuria ba, orduan momentuan konzejal gehixao eukan. Horkuak egoten zian, Angiozarko konzejala, Bergakuak eta danak. Zela konzejal gehixao eukan itxuria Elgetakuak -eztakitt hori seguru-, ba zertu ein zan, geldittu zan Elgetarako. Elgeta Elgetarako, eta bestiak Bergara fan bihar ziela eta. A, bueno ba. Fan zien eta akabo.

-Bestela terrenoz Ubera-eta haundixak die, ala?

-Ba, ez, Elgeta haundixaua da horrek baiño. Pentsaizu, hasi han behian, Olerrian (Olarreaga) ixa. Zuk badakizu hor beheko sardautokixoi, Ollakorta, hantxe hasten da bai Elgeta, eta amaitzen zan ixa Mondragoko handikaldeko mendixan. Ha Irutontorreta be Elgetakua zan eta. Nun daren harek, Kanpazartik harutz ikusten dian harek, basarri-etxe batzuk; Goimendixa esaten dotsena, Zulota, Zulota Goikua, Zulota Azpikua, Gontzarri, Altune; horrek danok Elgetakuak zien eta ixa San Prudentzioraiño sartzen zan Elgeta. El año mil trescientos y pico, Santa Maiña Bergakua Elgetakua ixenda dao. Hori historialian historixia kontatzen da. Harek egurra emun otsen Elgetakuei, Elgetakuak gutxiao zien eta "a fastidiarse"; ointxe pasatzen jakuena israelitei. Israelitak egurra emuten dotse bestiei, eta bestiak "atrás". Orduan be ze pasau zan? Iguala.

-Eta Santa Mariñako konturik-eta badakizu?

-Ez, ez. Eztakit nik Santa Maiñako kontuik. Santa Maiñan egongo zien, egongo die, baiña. Klaro, errekiak dibiditzen dau eta. San Prudentziora sartzen zan Elgeta, eta, klaro, Elgeta zelan San Prudentziora sartzen zan, zuk badakizu Oñatirako kruzia nun dauen, eta harek errekiak dibiditzen eban, hasi hor eta Osintxura arte. Eta klaro, Santa Maiña barruan sartzen zan. Gu bestekaldian justo, baiña sartzen zan.

7. Elgeta, "Los campos de Maya"

- **Erref:** ELG-012/009
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:20:30. **Bukatu:** 00:21:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra

Laburpena:

Elgetari "Los campos de Maya" deitzen omen zioten. Erromatarrek izugarritzko sarraskia egin omen zuten handik pasatzerakoan mendeku gisa.

Transkripzioa

-Elgetak zela eukan izena, "Los campos de Maya". Entzunda eukiko dozu hori? Los campos de Maya. Romanuak edo, eztakitt seguru neuk be, hori historixioi bastante ahaztuta dakat baiña, romanuak pasau eben hau "a sangre y fuego". Honek resistidu ei eben hemen, bakizu, orduan hemen dana mendixa zan eta. Bertako barri dakixenak ba "es el jefe, no?", eta resistidu ein eben asko, eta gero por venganza a sangre y fuego pasau hau danau. Esaten dabe hau "campos de Maya".

8. Espartero eta Marotoren besarkada Elgetan

- **Erref:** ELG-012/010
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:21:10. **Bukatu:** 00:23:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa

Laburpena:

Espartero eta Marotoren besarkada Elgetako lurretan izan omen zen. Hala ere, Bergaran zeuden epaitegiak eta "Bergarako besarkada" deitu zioten. Aitona mutikoa zen karlistada garaian eta kutxan gordeta egon zen ez harrapatzeko.

Transkripzioa

-Orduan behin baiño gehixaotan pasau zebeu hau, gerra zibillian-eta?
-Bueno, hemen rapapolbua. Karlistak be bai, karlisten denporan, zuk jakingo dozu, "Espartero y Maroto y ésos". Horrena ez zan ixen Bergaran, "El Abrazo de Bergara no fue en Bergara". Ixen zan hortxe mendixan, hor bestekaldian, hortxe, hortxe. Hortxe, hortxe bestekaldian. Zu Elorrixora bazoiaz ba, Elorrixora bazoiaz eta han ifintzen dau ba Bizkaia. Haintxe, haintxe gaiñekaldian, kamiñuan gaiñekaldian.
-Eta horrek izenen bat dauka?
-Horrek Kurutzebarri. Guk Kurutzebarri esaten dotsau. Ez dakit zegaittik, baiña guk Kurutzebarri. Baiña Elgetak zelan ez eukan, orduan denporan zelan ez eukan, zer esangot ba nik, aiuntamentu zerik, jente gutxi zelan bizi zan, eta juzgauak eta danak ordurako, itxuria, Bergan eren, eta, klaro, ifiñi eben "El Abrazo de Bergara", "pero el abrazo fue ahí". Aittajunak esandakua. Eta aittajunak, nere aittajunak ikusittakua. Aittajuna, harrapau ez deixen, kutxan egon zan gordeta. Mutiko-mutikua ei zan. Mutiko-mutiko-mutikua nere aittajuna. Kutxan. Kutxia badakizu ze dan: "granero". Eta kutxan egon ziela umiak soldauak, etorri zienian soldauak. Aittajunak ikusi ebala hor egon zala. "El Abrazo de Bergara fue en Elgeta, no en Bergara".

Baiña, klaro, gero Bergara juan zan zeragaittik, oseake Bergak titularidade gehixao eukalako. Titularidade gehixao eukalako Bergara juan zan.

9. Gerra karlistako anekdota

- **Erref:** ELG-012/011
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:23:00. **Bukatu:** 00:25:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa

Laburpena:

Karlistada garaian tropa bat behean eta bestea goian, "Gentilen pasealekua" deritzon egon ziren. Pasealeku horrek mendiari buelta osoa ematen dio. Soldaduak hantxe bueltaka ibili ziren behekoek izugarritzko tropa zirela pentsa zezaten.

Transkripzioa

-Hor goixan dago Jentillen Pasialekua, esaten dotsau; geure basuan dago erdixa inguru; erdixa ez, hirutik bat inguru-edo egongo da. Horrek basuorrek buelta guztian dauka bidia halan eindda, oiñ asko galdu eiñ da. Honek mendixonek, hau Goiko Mendi da, eta halan buelta guztian dauka eindda, eta han buelta guztian zerak, tropak ibilli zian bueltaka. Badakizu zegaittik? Bestiak erezen zerian, esto... han Eroskik badaukaz ba oiñ almagazak-eta, San Agustin, San Agustiñen, Elorrixon Eroskik almagazak eta badaukaz ba, hantxe erezen beste tropak. Eta bestiak erezen hemen, hemen erezen bestiak. Eta, klaro, handik hau katalajuekin ondo ikusten da hori mendixoi, eta hortik be bai ha. Eta klaro, hor jentillen bueltalekua eindda dago, eta hor tropak pasau eta pasau eta pasau eta pasau, hango zerak pentsau daixen ba kristona dauela. Eta ezebez, konpañia bat bueltaka. Pentsaizu zelako gauzak dian. Baiña hor dao Jentillen Pasialekua, hori hor dao. Klaro, oiñ momentuan dao zerakin, borrau eiñ da asko, beste gauza asko borrau dian moduan. Ezta?, gerrate-historixak be borrau eiñ dia-eta.

-Eta Jentillen Pasialeku hau karlistaden sasoikua da?

-Bai, karlistak-eta. Ez, karlistak handikaldekuak ixengo ziela uste dot. Bai, entre Maroto y Espartero egon zanian. Hortxe egon zan zeroi.

10. Euskaldunen pribilegioak noiz lortutakoak diren

- **Erref:** ELG-012/012
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:25:00. **Bukatu:** 00:26:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra

Laburpena:

Euskaldunek gerra gehienak galdu izan dituzte, baina Castellako erregeekin bat egin zutenean irabazi zuten gerra. Ordukoak dira euskaldunek dituzten pribilegioak.

Transkripzioa

-Euskaldunak hamarretik beratzittan ba gerriakin, juntau dienekin juntau diela, beti galdu eñ dabe. Azkenengua be galdu eiben, eta beti galdu eñ dabe. Baiña behiñ irabazi eben, behiñ irabazi eben, con los reyes de Castilla, cuando..., zuk jakingo zu, zuk historixia jakingo zu.

-Kontau, baiña.

-Cuando los reyes de Castilla fueron hasta Zaragoza. Han erezen zerak, erezen han Zaragozan tropak erezen katalanak eta hori Lerida, Valencia, behe alde guztioi. Hemen erezen Kastillakuak, hemen Kastilla aldekuak. Eta, klaro, euskaldunak zertu zien con los reyes de Castilla bat eñ eben. Eta klaro, euskaldunak dakezen pribilegixo guztiak haixe gerria irabazi ebenian, orduantxe emun otsezelako, no se que... emperador Carlos V o no se quién fue. Eztakitt seguru, eztakitt. Hori eztakitt seguru.

-Eta gerria irabazi?

-Bai, bai. Gerria irabazi eben. Zela fan zian con los reyes de Castilla, gerria irabazi eben, eta orduantxe emundako pribelikuak dare hemen. Esaten dana "los privilegios vascos", orduantxe emundakuak dia.

-Harrezkero gerrarik ez?

-Harrezkeriok ez. Baiña azkenengo gerria be ba horretxek, la independencia y todo eso, ba hoixe sostenitziarren urten eben euskaldunak gerrara. Eta urten eben gerrara, por casualidad urten be eiben; halan (kili-kolo-ren jestua) egon zan gauzia lelelenguan eta.

11. Ama neskame etorritakoa Elgetara

- **Erref:** ELG-012/014
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:27:10. **Bukatu:** 00:29:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Ama Uberako Ibergain baserrikoa zen eta aitona Angiozarko Zuloeta azpikoa baserrikoa. Bera Elgetan jaio zen 1930eko ekainaren 13an. Ama neskame etorri zen Elgetara izeba baten etxera

12. Gurasoek antolatutako ezkontzak

- **Erref:** ELG-012/015
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:29:20. **Bukatu:** 00:31:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>Aitari entzuna du lehenago gurasoek antolatzen zituztela seme-alaben ezkontzak. Euren etxean aurretik ez zuten ezagutu halakorik, baina halako tratuak egiten ziren.</p>

13. Maiorazgoa eta honen inguruko legeak

- **Erref:** ELG-012/016
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:31:00. **Bukatu:** 00:33:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Maiozazgoa. Normalean anai-arrebatatik zaharrena izaten zen maiorazgoa. Ezkondu artean etxean bizi ziren besteak mantendu beharra zuen eta gero ere besteek jana eta ohea "libre" izaten zuten. "Ley patriarcal"-aren inguruko kontuak. Baserri asko galdu izan dira terrenoak anai-arreben artean zatitzen zirelako.

14. Jatekoaren truk lanean

- **Erref:** ELG-012/018
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:35:20. **Bukatu:** 00:38:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Maiozazgoa garrantzitsua zen lehen, izan ere, beste anai arrebeak aukera gutxi izaten zuten: fraide, moja edo neskame joan edo Ameriketara alde egin. Entzunda dauka XIX. mende bukaeran jendea tripa-truke joaten zela baserrietara lanera. Gerra-ostean ere hainbat langilek janariaren truk lan egiten zuten.

15. Abade eta fraideei ematen zitzaaien jeneroa

- **Erref:** ELG-012/019
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:38:05. **Bukatu:** 00:40:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Abadeei garia entregatzen zitzaaien. Arantzazutik ere fraideak etortzen ziren jatekoa batzera. Aitak anai bat fraide zuen eta arreba moja eta Arantzazutik etortzen ziren fraideak sarri eurenean egoten ziren. Arantzazutik etortzen zen fraidearen inguruko kontuak.

16. Osaba abade eta enfermero batera

- **Erref:** ELG-012/020
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:40:40. **Bukatu:** 00:41:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Osaba abadea zen. Abadetza ordaindu egin behar izaten zen, baina euren osabak ez zuenez dirurik, abade zen bitartean erizain moduan lan egiten zuen.

17. Etxejabeari garia eta oilaskoak entregatu behar

- **Erref:** ELG-012/022
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:42:50. **Bukatu:** 00:46:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

<p>Errenteroek etxejabeei garia entregatu behar izaten zieten. Euren baserriak 17 anega gari entregatzen zituen. Urtearen arabera gari gehiago edo gutxiago entregatzen zen, urte txarra zenean ale ximurra geratzen baitzen eta hark ez zuen pisatzen. Babarrun anega tontortuta izaten zen eta garia, berriz, raseroa pasatuta. Neurriak. Urtean bi soro gari eta bi arto ereiten ziren eta hurrengo urtean aldatu. Gabonak aurretik izaten zen ordainketa eta oilaskoak ere ematen zitzaizkion etxejabeari. Honek trukean gabonetarako bakailaoa ematen zuen.</p>

18. Etxejabeak, "señores de la guerra"

- **Erref:** ELG-012/023
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:46:40. **Bukatu:** 00:48:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Etxe asko zituzten etxejabe handiak egon dira inguruetan. Horien gurasoak "Los señores de la guerra" zirela dio. Gerraren bat irabazitakoan buruzagiei lur-sailak ematen zizkieten eta horregatik zituzten batzuek hainbeste etxe, ez erositara. Independentzia-gerra garaian askok baserriak saldu behar izan zituzten tropei dirua emateko.

19. Baserriaren historia

- **Erref:** ELG-012/025
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:49:40. **Bukatu:** 00:51:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

<p>Euren baserriak 500 urte izan ditzakeela uste du. Aitonak esanda daki lehen Larrabilazpi zuela izena, gero San Juan Txiki eta azkenik San Juan.</p>

20. Basoa aitzurtu egiten zen garoa hartzeko

- **Erref:** ELG-012/026
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:51:00. **Bukatu:** 00:54:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Garai batean gaizki ibiltzen ziren ganadurentzat jatekoa gordetzeko lekurik ez zuten izaten eta. Baserriko bizimodua. Lehengo baserritarrak pobreak bai, baina tontoak ez ziren izaten. Garoak estimazioa zuen: mendian ebaki, ekarri, pilatu, lehortu, ganaduari azpian bota, satsa egin, sorora bota... Basoan "basatxurrean" egiten zen (basoa aitzurtu) garoa hartzeko. Bera ere ibilia da lan horretan.

21. Elizara oinutsik eta abarketak lepotik zintzilik

- **Erref:** ELG-012/028
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:55:40. **Bukatu:** 00:58:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

<p>Bere aita oinutsik joaten zen mezara abarketak lepotik zintzilik zituela eta elizara sartzeko jantzen zituen. Elurra zenean ere berdin. Ermandadeak. Ganaduren bat hiltzen zenean haragia denena artean banatu eta larrua subastatu egiten zen. Larru harekin abarkak egiten zituzten. Galtzerdiak egiteko haria ere etxean egiten zen txabilarekin. Bere aita osaba hil zenean jantzi zituen zapatak lehenengo aldiz eta hurrengo ezkondu zenean.</p>

22. Kubiartekin egindako abarkak

- **Erref:** ELG-012/029
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:58:40. **Bukatu:** 01:01:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

<p>Gerra-denboran kautxu falta egon zen Espainian. Abarkak ez ziren hura gabe ondo lotzen eta kubiartekin hasi ziren abarkak egiten. Zaragozatik etortzen zirenek ekartzen zituzten asko halako abarkak. Hankarako oso

txarrak izaten ziren. Larruzko abarkek ere bazuten bere hutsa: larrua ondo kurtitu gabe izan ohi zutela. Auzoko gazteak goitibeherak egiten zituzten eta haiek hankarekin frenatzen zituztenez astean abarka pare bat puskatzen zuten.</p>

23. Etxejabe ezagunak

- **Erref:** ELG-012/030
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 01:01:20. **Bukatu:** 01:02:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Bergarako Irizar eta Arteagatarrak ziren etxejabe ezagunak. Horien gurasoak militarrek ziren. Coronado ere Arteagatarra zen eta bere aita Guardia Zibilaren teniente koronela zen. Elgetan bi baserri zituen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-09

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com